

Salbazioa

HASIER ETXEBERRIA



LEHENGO batean *Bi eta Bat* teleaioaren grabaketa berri batean izan nintzen. Hantxe zuden bilduta teleserie arrakastatsu hau burutzen duten gremio guztiak: aktoreak, zuzendariak, aktoreak, makilariak, atrezistak... Ikustea snertatu zitzaidan eskenan. Iau aktore ageri ziren taberna zulo batean. Beraietako bi, Agirre eta Mendizabal, (aktoreak, ez bertsolariak), EUSKALDUNON EGUNKARIA irakurtzen ageri ziren eta, noski, halaxe agertuko dira pantaila-eren.

EUSKALDUNON EGUNKARIARIK egon izan balitz, atrezzo prolema hura nola konponduko zuten pentsatzen jarri nintzen une batez. *Diario Vasco* eta *El Correo Español* irakurtzen ezin zituzten jarri euskaraz mintzo ziren bi aktoreak. *El Mundo* irakurtzea ere ez litzateke batera ongi etorriko eta zer esanik ez *Deia* edo *Eginen* kasuan. Batera zein bestera, gehiegi markatuko zukeen eskena.

Balitzko irtenbideetako beste bat, gezurrezko egunkari bat marraztea izango zen. Grafistari agindua eman eta hark, *Egunon*, *Kaixo*, *Eguna* edo *Hemen* izenburua lera makeen egunkari gezurrezko bat antolatzea, zela edo hala. Akaso era horretxetan bakarrik gaudituko zuen Salomonek arazo hain puntuala.

EUSKALDUNON EGUNKARIA zeukaten eskutan, ordea. Neu oker eta bihurri samarra naiz-lako konturatu nintzen horretaz, baina zurr naiz han ziren gainontzeko beste hogei lagunek, ez zutela gertaera txiki hau kontuan hartu. Han ziren euskaldun eta erdaldunentzat gutzit normala eta egunorokoa zen aktore haiek EGUNKARIA irakurtzea.

Batzuri oraindik ere irenstea zail gertatzen zaizkien paperezko orri hauek, atrezisten salbazioa izan ziren egun hartan. EUSKALDUNON EGUNKARIARIK ekarri zuten eskena hartako normaltasuna eta oreka. Berak bihurtu zuten ametsak-egoera bat, egiazko, egunoroko eta sin-esgarri. Ikusi nahi ez duena itsua da, edo bestela, gaiztoa.

Oso ondo

TXILLARDEGI



BETIKO hiletari triste horiek besterik esan arren, oso ondo goaz. Esate baterako: 'Denon Artean', Mundu guztiak daki, (edo jakin egin behar luke bederen), Euskal Eskolari buruzko lege-proposamen berriek, helburu hau besterik ez dutela: Eskolaren alorra *norma-li-zai-ce-a*. Besterik ez. Zer den hori? Baketzea, despolitizatzea, 'violentoengandik' urruntzea, desdramatizatzea, zaratarik gabe erdaldunetzea, norrenifikatzea, buesifikatzea, eta abarretza. Zertara datoz, beraz, 'Denon Artean' taldeko irrazional eta visceral horiek? Kaka nahastea. Besterik ez. Lehertuko al dira!

Beste adibide frexko horietako bat: UPVko irakasle kontratatu bedeinkatu horien serial nazkagarri eta irekaitza. Mais, qu'est-ce qu'ils veulent encore ces profs? Ez dugu behin ere bakerik izango!... Jose Ramon Etxebarria, Koldo Gorostiaga, eta gainerako jendilaje hori guztia, *kan-po-an da-go*. Kitto, Ez dute kontratua izenpetu nahi. Kalera, beraz. Eta agur, Benetako Euskal Unibertsitatea, norma-denez, visceral horiek gainetik kentzetik hasten da.

Beste perla bat oraino. Perez Estremerearen *izendapena*. Donostiako Zinemaldiaren arazoa konpontzeko, oso bide egokia hartu da: *madriñito* bat ekartzea. Rigako Zinemaldia bultzatzeko Moskuko zinemalari bat izendatzea ez genuke aisa ulertuko; eta Quebecoko zinemaldia bultzatzekotan, Ottawako angeles-dun elebakar bat izendatzea ere ez. Zer egingo du Estremera horrek euskal filmen baltioa neurtzeko? Beharbada Buesari telefonatuko dio, edo Ordoñezi...

Galdera zozok. Ongi dakit. 'Pactoaren' eskutik, eta 'anti-Pactoken' moldatu-ezinetik, ondorioa garbi baitago: Estremera, Buesa eta Calleja nagusi.

Oson ondo!!

● egin

Haizea nora gogoia hara

Haizea nora zangoa hara. Halaxe EA. Eskuartearen dugun marko politikoa berritu egin behar dela dio Gasteizko Legebiltzarrean eta Gernikako Estatutua ez duela gogo-beteko. Abertzaleek gehiengo osatzen dutela esanez abertzaleen batasunaren alde egiten du oihu mitinetan, eta gehiengo honetan finkatzen da Gipuzkoan gobernu aldatu behar dela eskatzen duenean. Baina horiek zertzeko ordua etortzen denean, eta ikuspegi horiek kontuan izanez hau edo hori egiteko proposatzen zaionean, EAk atzera egiten du.

EDITORIALA

● EL MUNDO

Ekologi Heriotzaren Kostaldea

Armadoreen onura egarria ez da izpirik ere baretzen karga oso arriksua eta ekologiarren ikuspegitik ahalaz suntsizaitela

EDITORIALA

HEMEROTEKA



Zerriak!!

badakarte ere. Untziaren egoera txarraz gain, nolanahi harturiko tripulazioen kaosa hor dago, kontrataturikoak lan baldintza izugarri batzuek onartzeko prest egoera beste irizpiderik gabe. Ofizialak gutxiegi dira eta beren titulazioa, zenbaitetan, jatorri aski iluneko. Gañera kopurua itsas-zabalako beharren arabera kalkulatu izanik, portura iristen lanak gainetza egiten die eta akatsak berriz ere saihestezinak dira. Azken garaioetako itsas-istripu askoren zergaita untziazaren egoera txarraz gain gidatzen zuenaren egoera txarraz gain izan da.

Itasoa hiltzen ari dira. Eta itsasoa, Gizateriarentzat —ez

dezagun ahantzi— bizia da.

EDITORIALA

● ABC

Moral publikoa garaile

Atzodanik 903ak ez du erantzuten. Isilitasun ukizien eta osasungarriak ordezkatu ditu antzerki beltz honen ahotsak. 120 enpresa harturik zituena eta gordintasuna ekartzen zuena etxetara. Ezinezkoa zen 'zerbitzu' horrek ez izatea atxikirik iruzur fiskala, prostituzio sareak eta

ZULET / EL CORREO ESPAÑOL fede publikoaren trafikoa sari lizunak eskaintzen zituzten lehiketen arropapean.

903a etxean indarrez sartzea zen, amu zikina haur eta gazteentzat, jakinminak eta araua hautsi nahiak bezero bihur zitzaizkeenak sexuan abiarazteko modu beldurgarria. Hori kentzea ez da legeak agintzean eustearren arrakasta soil, baizik, sakonean, moral publikoarena, denda guztiak ezker guztiak lehertzen saiatu diren kontzeptua, ezeroso delako, eta atzo berriz agertu dena, makurgabe eta plurala. Teleficaren ohar baten forman.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Demografia baino urrunago

Euskal Autonomi Elkartearen demografi tasa txikia dela eta, azken bolada honetan euskal gobernuaren zenbait funtzionari komunikabideetan kezkatuta agertzen ari zaizkigu. Euskal etorkizuna kolokan egon litekeela esaten digute eta abertzaleen-argatik seme-alabak izan beharko genituzke.

Funtzionari hauek ez daude, nonbait, hain kezkatuta euskararen egoeraz edota Euskal Herria hiru zatitan banatzen ikusten dutelarik.

Nik euskal autonomiaren funtzionari hauei bi gauza esango nizkieke:

1.- Euskal Autonomi Elkartearen etorkizuna, hau da, Espainiako zati bat bezala hartuta, ez zait batere interesatzen; eta galdetuko nieke ea zertarik seme-alabarik izan behar dugun; espainiarrek izan daitezkeen, espainiar soldadutza egin dezaten?

Zergak ordain ditzaten eta horien bidez errepresioari eta gobernu ustelei eutsi diezaitzen? Langabezia ito daitezen ala Erretzaintzak jo eta astin ditzan? Nik aste gutxi espainiar txikiak mundura ekartzeko zuek oso gai zaretela.

2.- Euskal Herriko etorkizunaz kezkatuta bazeudete, borroka ezazue euskara eta independentziaren alde eta ez txorakeriarik esan, otoi!

I.B. Bilbo

Industri Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskolak eta ospakizunak

Gaur, abenduak 5, Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskolak, 50 une betetzen ditu. Hau dela eta,

Eskola honetako Zuzendaritzak ospakizun batzuk antolatuta ditu.

Bilboko ITUEKO ikasleok ospakizun hauek alde agertzen gara. Eskolako partaide baikara, eta gure ikasketen garrantziaren jabe garelako.

Baina 50. urteurren hau, gure atsekaberrako, ikaslerik gabe ospatuko da, Zuzendaritzak ekintza hauetan gure partaidea alde batera utzi baitu.

Horregatik, Zuzendaritzaren politikarekiko gure desadostasuna adierazi nahi dugu —ez urteurren honen ospakizunarekiko— zeinak handikeria hutszeko ekintzetan soilik pentsatu duen, eta ez Eskolako kideen benetazko partaidea egon litekeen ekintzetan.

Guzti hau dela eta, ikaslearen ordezkariak ez dira joango gonbidatutak izan diren ospakizun gutxietara.

ITTUE-KO ASANBLADA Bilbo

GAIA JARRITA



Durangoko Azoka

Euskera degu askok gaineko alkandora, sekula sartu gabe bihotzan ondora; horregatik gabiltz beti maldan gora. Berriketa guztiak utzirik alborra, nortasunez jazerata goazen Durangora.

IMANOL LAZKANO

Egunkaria

Batzorde Parekidea, 72564 E / Lege Gordailua, SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORRELDADI

Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URÍA

Zuzendariordea: LUZHEN ETXEHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Ereduekizio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialea 01-02

Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egokitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakintza, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Lezker, 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irriziti dorrea) /

31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barrieta Alkandara, 2-1. eskuna, / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta Kutxatua, / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11